

Gradu Amaierako Lana

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

IRAKASLEAREN ESKU HARTZEA PSIKOMOTRIZITATE SAIOAN

EGILEA: OIHANE DÍEZ GONZÁLEZ

ZUZENDARIA: NATALIA MONGE GÓMEZ

Leioan, 2015eko maiatzaren 26an.

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
1. MARKO TEORIKOA.....	5
1.1. Hezkuntza eta prebentzio praktika.....	5
1.1.1. Aucouturier metodologia.....	6
1.1.2. Saioaren egitura:.....	8
1.2. Hezitzailearen esku hartzea.....	11
1.2.1 Zergatik eta zertarako esku hartu.....	12
1.2.1 Hezitzailearen jarreraren ezaugarriak.....	14
2. METODOLOGIA.....	18
3. IRAKASLE BATEN ESKU-HARTZEAREN ANALISIA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK.....	19
3.1. Saioaren antolaketaren analisisa.....	19
3.2. Hezitzailearen jarreraren analisisa.....	23
4. ONDORIOAK.....	26
5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	28
ERANSKINAK.....	30
1.Eranskina: Hezitzailea behatzeko taulak.....	31

IRAKASLEAREN ESKU HARTZEA PSIKOMOTRIZITATE SAIOAN

Oihane Díez González

UPV/EHU

Bernard Aucouturier pedagogoak sortutako praktika psikomotorrak, bide motrizetik abiatuta, haurraren heltze psikologikoa helburu duen metodoa da. Haurra bere garapenean ulertu eta lagundu ahal izateko psikomotrizitatearen beharraz kontziente izanik eta Aucouturier metodologia abiapuntutzat hartuta, lan honetan, hezitzaile bakoitzari bere praktika hobetzeko eta horren inguruan hausnartzeko erreferentzia markoa eskainiko zaio. Horretarako, bi urteko gela bateko irakaslearen esku hartzearen analisiaren bidez, jardunaren egokitasuna ebaluatzearekin batera, esku hartzea hobetzeko proposamena eskainiko da. Izan ere, hezitzailearen oinarrizko funtzioa praktika psikomotorrean modu ez zuzentzailean esku hartzeko egoerak sortzea da, horretarako formakuntza pertsonal eta profesional sendo eta zorrotza ezinbestekoa izanik.

Gako hitzak: Hezkuntza eta prebentzio praktika psikomotorra, hezitzailearen jarrera, esku hartze psikomotorra, Aucouturier metodologia, formakuntza pertsonala.

La Práctica Psicomotriz creada por el pedagogo Bernard Aucouturier, es un método que tiene por objetivo la maduración psicológica del niño a través de la vía motriz. Siendo conscientes de la necesidad de la psicomotricidad para poder entender y ayudar al niño/a en su desarrollo y basándonos en la metodología de Aucouturier, el objetivo principal de este trabajo es ofrecer a cada educador la posibilidad de reflexionar y mejorar su propia práctica. Para ello, se ha realizado un análisis de la intervención del profesor en un aula de dos años, evaluando su adecuación y planteando una propuesta de mejora. Ciertamente, la principal función del educador en la práctica psicomotriz es ofrecer las condiciones adecuadas para intervenir de una manera no directiva, para lo que es imprescindible una formación profesional y personal sólida y rigurosa.

Palabras clave: práctica psicomotriz educativa y preventiva, actitud del educador/a, intervención psicomotriz, metodología Aucouturier, formación personal.

Psychomotor Practice created by pedagogue Bernard Aucouturier, is a method which aims the psychological maturation of the child through the driving route. Being aware of the need to understand motor skills and help the child in his / her development and based on the methodology Aucouturier, the main objective of this work is to give each teacher a chance to think about and improve their own practice. To achieve this aim, it has conducted an analysis of the intervention of the teacher in a classroom of two years, assessing their suitability and setting out a proposal for improvement. Certainly, the main function of the educator in the psychomotor practice is to provide the suitable conditions to intervene in a non-directive way, so that a solid and rigorous professional and personal training is essential.

Key words: Psychomotor educational and preventive practice, attitude of the teacher, psychomotor intervention, Aucouturier methodology, personal training.

SARRERA

Haur hezkuntzako profesionalek betebeharrak handia dugu haurren garapen psikomotorrean, hori baita haurren garapen armonikoa eta integrala bermatzeko abiapuntua. Lau urte hauetan, psikomotrizitatearekiko egin dugun ikaskuntza oso oinarrizkoa izan da irakasleak izan beharreko jardunaren inguruan haur hezkuntzako etapa osoan zehar, hau da, 2-6 urte bitarteko adin tartean. Alor honetan aditua den Bernard Aucouturier pedagogo frantsesak, ekarpen oso garrantzitsuak egin ditu eta gai honen inguruan gehiago jakin nahiak piztu du nire interesa. Praktika psikomotorrak, umeari askatasun osoz hazteko aukera ematearekin batera, irakasleoi hezkuntzan jarduteko beste bide bat zabaltzen digu.

Kontuan izanda, psikomotrizitatea haurrak bide motrizetik azaleratzen duen guztia ulertzeko aukera ematen digula, haurrekin harreman berezia eraikitzeke eta bere jokabideak ulertzeko gaitasuna bereganatzeko hezitzaileok hartu beharreko jarreraren inguruan hausnartu behar dugu. Nire etorkizun profesionalari begira, irakasleok psikomotrizitate saioetan jarduteko formakuntza sakonagoa behar nuela oso argi nuen eta ildo horretatik Gradu Amaierako Lanak eskaintzen didan aukera aprobetxatuz, gai honetan sakontzea erabaki dut. Horrela, lan honen bidez eta Aucouturier metodologia jarraituz, Hezkuntza eta Prebentzio Praktika psikomotorretik abiatuta, etorkizunean eredugarri izan daitekeen hezitzailearen profil egokia eskaini eta oinarrizko jarrera printzipio batzuk argitzea da nire helburu nagusia. Lan honen jomugak ondorengo hauek dira:

- ❖ Haurren garapen psikologikoan laguntzeko hezitzaile eredu eskaintzea.
- ❖ Aucouturier metodologiak aurkezten duen hezitzailearen profilaren inguruan hausnartzea eta jarduteko bitartekariak eta instrumentuak ezagutzea.
- ❖ Behatutako saioen hezitzailearen jarrera analizatzea eta hobetzea.

Era honetan eta Bernard Aucouturier-en proposamen metodologikoak zehazten dituen printzipioak aintzat hartuta, irakaslearen jardunari eskainiko diogu arreta. Amaitzeko, bi urteko eskola bateko errealitatearen analisia egin ostean eta Aucouturierren metodologian oinarrituz, irakaslearen jarduna hobetzeko proposamen bat eskainiko dut.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. Hezkuntza eta prebentzio praktika

Psikomotrizitatea, garapen psikologiaren eremuari dagokio, inguratzen gaituen munduarekin harremanetan gizakiaren eraketa somatopsikikoa eraikitzeari erreferentzia egiten diona. Izan ere, psikomotrizitatea, haurrak bere buruari buruz bide motrizetik azalarazten duen guztia ulertzeko bide bat da, bere jokabideen zentzua ulertzeko aukera eskaintzen duena (Aucouturier, 2012). Definizio orokor hau aintzat hartuta, nire lanaren ardatza izango den hezkuntza eta prebentzio praktika psikomotorrean zentratuko naiz. Hori baita aurkeztuko dudan gaiaren abiapuntu nagusia. Praktika honen aitzindaria Bernard Aucouturier da, hain zuzen ere, praktika psikomotorraren sortzailea.

Hezkuntza eta prebentzio praktika psikomotorra, haurraren jarduera ludikoak garatzen laguntzen dituen praktika da. Praktika hau heldutasunera igarotzeko ibilbide gisa ulertua dago, “jarduteko atseginetik pentsatzeko atseginera” igarotzea helburu duelarik eta aldi berean, haurra larritasunen aurrean seguru sentitu daiten ahalbidetzen duelarik. (Aucouturier, 2012). Modu honetan haurraren heldutasun globala bermatuko dugu, heldutasun afektiboa, mugimenduzkoa eta kognitiboa, hain zuzen ere

Aucouturierrek proposatzen duen metodologiari jarraituz, oso garrantzitsua izango da kontuan izatea edozein proposamen hezitzailek hiru helburu nagusi izan behar dituela: komunikatzea, sortzea eta pentsatzea. Era honetan proiektu hezitzaile koherente bat sortzen egongo gara, haurren hezkuntza integralari erantzungo diona eta hezkuntza eta prebentzioaren praktika psikomotorra ahalbidetzen duena: (Aucouturier, 2012)

- Komunikatzea: edozein gizakik duen beharrezana da, besteekin interakzioak izaten ditugun heinean sortzen dena. Komunikatzeko gai den haur batek ez ditu arazo afektiboak izango, bere buruarekin ondo sentitzen da, hala ere, hezitzaileontzat ezinbestekoa izango da mezu ez berbalak ulertzea eta horiei erantzun egoki bat ematea, keinu, emozio edo hizkuntzaren bidez.
- Sortzea: haurrak zerbait sortzen duenean bere burua islatzen du, existitzen denaren sentimendua sorrarazten dio. Aldi berean, sorkuntza, ongizatea eta

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

osasuna dira eta baita gure barrenean dagoen beste “ni” azalarazteko aukera ere ematen du, bere desio, balore eta afektu bidez sortuz. Sortzeko helburu hori lortzeko, haurrak praktika psikomotorrean daukaten askatasuna eta kreatibitatea aipatu beharra daude.

- Haurrak hasiera batetik pentsatzen duen guztia egiteko beharra du, ez da gai egin gabe pentsatzera, hau da, hartu, bota, batu, banatu, asoziatu, aukeratu... egiten duenean pentsatzen ari da. Nagusitzen doan heinean, momentu bat heltzen da, non haurrak dagoeneko ekintza bakarrik irudikatuko duen hori burutu gabe, inguruan ondoriorik sortu gabe. Deszentrazio progresibo hori heldutasun afektiboaren eta psikologikoaren emaitza da, pentsamendua pentsatzearen plazerra izanik eta izatea eta existitzearen atsegina haztzen hasiz. Beraz, deszentrazioan, norbere emozio eta afektibitateak aldentuta mundua ulertzeko gaitasuna da. Umeari eta munduari dagokionaren arteko diferentzia ezartzean datza. (Aucouturier, 2012)

1.1.1. Aucouturier metodologia

Pedagogia ez zuzentzailearen markoan kokatuko gara, non haurren adierazpenak aintzat hartuko ditugun, bere lorpenekiko sentiberatasuna izango dugun, hau da, ikaskuntza prozesuaren protagonista bakarrak haurrak izango dira. Protagonismo hori bermatzeko, orientatu, erraztu eta bideratuko dugu umea eta horiek izango dira zuzentzeko erabiliko ditugun baliabideak. Haurra bere esperientzia propioaz jabetzeko prozesuan lagunduko dioten estrategiak garatuko ditugu.

Umea subjektu aktibotzat onartuta, heldutasun globala bermatzeko saioaren ezarpena bi dispositiboetan oinarrituko da:

a) Dispositibo espaziala:

Psikomotrizitate gela bi espaziotan desberdinduko dugu bakoitza bere adierazpen izaerarekin: bata mugimenduzko adierazpenari dagokiona eta bigarrena adierazpen plastikoari, grafikoari eta mintzairari dagokiona. Mugimenduzko adierazpenari

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.


eskaintzen zaion espazioa zabala izango da, mugimenduzko jolaserako erabiliko da eta bere material zehatza izango du. Adierazpenerako espazioa aldiz, txikiagoa izango da, eta bere material espezifiko izango du.

Haurrak espazio batetik bestera igarotzera gonbidatuko ditugu, horrela bere gorputzarekin jolastearen gozamenetik eraikuntzen edota margoen bidez sinbolizatzeko gozamenara igaroko dira. Horrek haurrari, gorputzetik hizkuntzara doazen sinbolizazio maila desberdinetatik igarotzera lagunduko dio, funtzio sinbolikoa garatuz.

Akziotik pentsamendurako igarotze hau umearen psikismoan laguntzen du, kontuan izanda hau ordu bete batean, gutxi gora behera, gertatzen dela eboluzio nabarmena suposatzen du haurarentzat eta horrek gutxinaka bere inplikazio emozionaletik distantzia bat izatera bultzatzen du, deszentrazioan lagunduz (Dominguez, 2004).

b) Denborazko dispositiboa:

Denborazko dispositiboa hiru fase nagusitan dago banatuta: lehenengoa mugimenduzko adierazpena izango da, bigarrena istoriorako denbora izango da eta hirugarrena adierazpen plastiko eta grafikoari eskainia egongo da. Hiru fase hauek hasierako erritualarekin eta amaierako erritualarekin osatzen dira.



o Bi urtetik sei urterarte saioaren ezarpena

Denboraldi honetan saioa hasi aurretik dispositibo espaziala antolatuko da eta progresiboki denborazko gailua gehituko dugu. Oso garrantzitsua izango da espaziozko eta denborazko antolaketa errespetatzea, aipatu bezala, haurrei segurtasuna ematen dielako. (Aucouturier, 2012)

Saioen iraupena desberdina izango da haurren adinaren arabera. Lan honi dagokion adinean (2-6 urte), hirurogei minutuko saioa ez da nahikoa fase guztiak garatzeko. Kontuan izan behar dugu, eskolako errealitateetan, saioari eskaintzen dioten denboran ez duela astirik ematen Aucouturierrek proposatutako fase guztiak garatzeko eta horren aurrean, irakasle gehienek hartzen duten erabakia ipuinaren fasea kentzea dela, gelan

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

lantzen delako. Horretaz gain aintzat hartu behar da gela batetik bestera joateko behar den denbora, zapatak eransteke eskaini behar zaien tartea, saioa asko laburtu dezake. Izan ere, haur txikienekin hasierako errituala garatzeko zailtasunak izan ditzakegu askok oraindik ez dakitelako hitz egiten eta beraz ezin dizkigute haien ideiak eta asmoak azaldu. Hori dela eta hasierako errituala eta amaierako errituala laburtu behar izango ditugu eta jarduera sensoriomotorrari eta adierazpen plastiko eta grafikoari garrantzi gehiago eman beharko diegu.

Aipatu beharra dago lehenengo hiru urteetan beste pedagogia ez zuzentzaile bat oinarritzat hartuko dela, Pikler-Lóczy izenekoa, hain zuzen ere. Haurra izaki berez aktibotzat ikusten da, umearen garapen sensorio-motor autonomo eta autogidatua bultzatuz eta kalitatezko tratua eskainiz (Herrán, 2013).

1.1.2. Saioaren egitura:

Saioaren egiturak denbora eta espaziozko antolaketari erantzun beharko dio. Denborazko dispositiboan aipatu bezala, hiru denbora nagusituko dira eta horiek hasierako eta amaierako erritualaren bidez osatuko ditugu.

a) Hasierako errituala

Haurrak gelara sartu eta gela ikusteko eta prestatutako espazioak ikusteko moduan kokatuko dira. Ispilua izanez gero, aurrean jesarriko dira bakoitzak bere burua taldean ikus dezan. Erritual honek garrantzia handia du, izan ere, haurrak maila sinbolikoan jarduteko prestatzeko giroa sortzen lagunduko digulako:

- Irakasleok haien jolasean laguntzeko baino ez gara egongo eta haiek jolastea baino ez dute egin behar, arau batzuk errespetatuz: “minik ez eman eta minik ez hartu”.
- Saioaren bi atalak gogoraraziko zaizkie eta batetik bestera igarotzeko gonbitea egingo diegu ipuina entzun ondoren..
- Saioari hasiera emateko, irakasleak alde aurretik eraikitako blokeko horma bota beharko dute. Momentu hau haurrentzat oso garrantzitsua da, jolasteko desiatzen daude eta hormaren apurketak, desio horren askatasuna dakar. Talde osoaren artean irakasleak eraikitako horma apurtu behar dute eta akzio horrek taldeko emozio kolektiboa askatzen

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

du. “Destrukzio” momentu horrek haurrentzat plazerra suposatzen du, desinhibitzeko momentua askatasun osoz saioan jolasari hasiera ematekoa.



Argazkia 1: Saioari hasiera emateko horma



Argazkia 2: Hormaren apurketa

b) Mugimenduzko adierazpenaren fasea

Subjektuaren mugimenduzko adierazpena bere historia pertsonalaren, adinaren eta giroaren arabeko mugimenduak eta irudikapenak izango dira. Haurra nagusitzen doan heinean, eta kanpoko munduaren konkista hasten denean gozamen sensoriomotorra agertzen da. Material baldintza egokiek, askatasun egoera batean, ondorengo jarduerak egiten hasiko da: saltoka, lasterka, biraka, jauzika eta oreka batik bat. Gozamen hau haurraren nortasunaren adierazpena da, gorputz tentsazioen eta egoera toniko-emozionalen arteko bateratzea ematen delako, hau da, bere sentimenduak eta emozioak azaltzen ditu gorputz tentsioen bidez (Wallon, 1980). Haurrak errealitatea eraldatzen du, bere gozamen eta gatazka guztiak berbizitzen ditu, konponbideak emanaz baina bereziki errealitatea fikzioaren bidez osatzen du (Dominguez, 2004).

Umeak jolasten ez duenean, errealitateak subjektua menperatzen du eta fase honetan jolasaren bidez, egoera honi aurre egiteko aukera dauka. Ikaratu eta harritu egiten dioten animalia eta super heroiak ahul bihurtuko ditu bere imajinazioan eta gehienetan jolasaren ahalguztiduna antzemango dugu. Jolas hauen bidez, haurrak egoera sortzaile batean, bere desio eta beharrek eskatzen dutenaren eta errealitateak eskaintzen duenaren arteko konpromisoa hartzen du. Jolas sinbolikoak haurraren bizitza afektiboaren adierazpen sakonagoa suposatzen du. Adierazpen hori hezitzaileak ulertzeko, haurrak egiten duen materialaren, espazioaren eta besteekin duena


Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

harremana behatu eta interpretatu behar du. Jolas sinboliko hau garatzeko material egokia izatea beharrezkoa da, neutroa, forma eta ehundura desberdinetakoa.

Jarduera hauekin batera, beste hainbat ekintza ere antzeman ahal izango ditugu: biltzea, izkutatzea, espazioa eta materiala eraldatzea, bultzatzea, urruntzea, bueltak ematea, eraiki eta estaltzea bezalakoak. Guzti hauei segurantz sakoneko jolasak deritze (Dominguez, 2004).

c) Ipuinaren fasea:

Mugimenduzko fasea amaitu eta gero ipuin kontaketa burutuko dugu. Saioari eman nahi diogun egituraren arabera, jolas eta mugimenduzko denborari amaiera emateko, lasaitasun une bat eskaini behar diegu hurrei adierazpen grafiko eta plastikoarekin hasi aurretik. Egoera honetan, hurren fantasia eta interesei erantzungo dien narrazio bat kontatuko dugu. Izan ere, lagungarria da, egoera gatazkatsuak eta adierazi ez diren desioak berreskuratzeko eta horien inguruan aritzeko, beti ere marko afektibo batean, errukirik gabekoa eta neurritzkoa dena (Sanchez y Llorca. 2001). Horrela adierazpen faseari bidea zabalduko diogu eta haurrak deszentrazio prozesu batean murgilduko dira.



Argazkia 3: Ipuin kontaketa

d) Adierazpen plastiko eta grafikoaren fasea:

Hirugarren fase hau, eraikuntzarako, marrazketarako eta modelaturako materiala dagoen bigarren espazioan garatuko da. Espazio honetan, garatu beharreko ekintza guztiz askea da, haurrak sinbolizatzea nahi dugu deszentziora heltzea, horretarako testuinguru sortzailea egon behar da non haur bakoitzak adierazi nahi duena azaltzeko aukera duen.

Haurrek eraikitzen dutenean heldutasun prozesua antzeman daiteke, izan ere, egiturak sortzeko gero eta gaitasun handiagoa dute: multzokatu, bertikaltasuna, horizontaltasun. Marrazketan aldiz haurrek haien istorio afektiboa marrazten dute. Hala ere, garrantzitsua izango da hezitzailea marrazkiari buruz galdetzea eta haurrek

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

marrazkiaren istorioa kontatzea, horrela deszentrazioan lagunduko diegu (Arnaiz, Rabadan, Vives, 2001).

Haurrak jardutearen atseginetik pentsatzeko atseginera egiten duen ibilbidea da. Espazio honetan bere pentsamendua berrantolatu eta moldatu egiten du, bere produkzioaren eta errealitatearen antzekotasunaren arabera. Adierazpen fasean erabiltzen diren materialak ere garrantzitsuak dira: papera, tamaina desberdinetako kartulinak, argizariak, errotulkiak, arkatzak, artaziak, pegamentoa, plastilina, egurrezko piezak, ipuinak, txotxongiloak.

e) Amaierako errituala:

Azken fase honetan, hurrek saioa amaitu dela pertzibitzen dute, dagoeneko ezagutzen duten errutina bat da. Gela aurkitu duten bezala usteko unea da, materiala jasotzekoa. Aldi berean hurrek haien buruari buruz hitz egin dezakete edo hurreko fasean sortu dutenari buruz hitz egiteko.

Azkenik, kontuan izan behar dugu, psikomotrizitate gela topaketarako espazioa dela non hurrek ikertu eta ikasten duten eta aldi berean irakaslearen lan espazioa da, horregatik atentzio handia jarri beharko dio hurren eta taldearen beharrezanaren arabera. Jolastearen desioa guk aurkezten dizkiegun material eta espazioetatik sortzen da, beraz, erronka bat suposatu behar du haurrentzako aurkikuntza izateko. Erabiltzen dugun gelaren antolaketa eta materiala gure helburuengatik egongo da baldintzatuta, beraz ezinbestekoa izango da gela antolatu aurretik landu nahi duguna pentsatzea eta aldi berean, saioa amaitzean, hasierako asmo horietatik zeintzuk bete diren eta zeintzuk ez eta zergatik ez hausnartzea (Sanchez, Llorca, 2001).

1.2. Hezitzailearen esku hartzea

Hezitzailearen jarrera praktika psikomotorrean ondorengo printzipio metodologikoan oinarrituta dago: “pertsonarengan sinestea” (Aucouturier, 2012). Berdin du zein den

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

bere adina, arazoa edo desgaitasuna, haurra edozerren aurrean esperientzia bakarra duen pertsona gisa kontsideratu behar da, eta errespetuz onartua izan behar dena. Bestearen emozioak distantzia batekin jasotzeak, hezitzailearengan entzuketa jarrera bat sortzen du zeinek komunikazioan, ulermenean eta prestutasunean laguntzen duen.

Hezitzailearen esku hartze psikomotorra eremu hezitzaile batean, irakasleak nahita egiten dituen jardueren multzoz osatutako jarduera hezitzailea litzateke. Beti ere, haurraren garapen psikomotorrean laguntzeko helburuarekin eta ibilbide ebolutiboan lagunduz, non ekintzatik pentsamendura eta keinutik hizkuntza igaroko den jolasa eta mugimenduaren bitartez. (Franc, 2004)

1.2.1 Zergatik eta zertarako esku hartu

Garapen psikomotorra, jarduera eta funtzio motrizetan eta psikikoetan sortzen diren aldaketen eta eraldaketen uztarketari egiten dio erreferentzia. Horren barruan hiru eremu nagusi aurkituko ditugu: gorputzaren kontzientziaren eraketa, espazioan eta denboran antolatze eta orientatzeko gaitasunen garapena eta harremantzeko gaitasunen garapena. Beraz, hezitzailearen rola haurra bere nortasuna eraikiko duen ibilbidean zehar laguntzean datza, hau da, haurren garapen armonikoaren prozesuan parte hartzean (Franc, 2004). Kontuan izan behar dugu, psikomotrizitate saio batean, material, espazio eta ekintza anitz garatzen direla eta irakasleak aniztasuna horri erantzuten jakin behar du. Haurrak askatasun osoz jardungo dute espazio zehatz batean (psikomotrizitate gelan), eta hori gelan gertatzen ez den egoera bat izanik, irakasleak haurrei askatasun osoz jardutea bermatzen duen heinean, begirada zehatz batetaz baliatu beharko da, gelan dagoen aniztasuna kontrolatzeko.

Gure ikasleei harreman esperientziak, komunikaziozkoak, sentsorialak, pertzeptiboak eta irudimenezkoak eskaintzen dien testuinguru hezitzailea eskaini behar diegu non, ikertu, sortu eta ingurua eraldatu dezaketen. Guzti hau edozein proposamen hezitzaileek dituen ezaugarriak barnebiltzen baditu ere, horietatik desberdintzen dituen

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

hiru tresna nagusi ditu: mugimenduzko jarduera, elkarrizketa tonikoa eta jolasa. (Franc, 2004).

Mugimenduzko jarduera, emozioekin batera bizitza psikikoaren berri emateko baliabidea da. Mugimendua, tonuaren bidez sostengatuz, adierazpen bidea da eta baita emozio iturri ere izango da. Beraz, dimentsio emozionala eta motriz garapen psikomotorra garatzen hasten den nukleoa dira, eta beraz esku hartzearen abiapuntua. Bi eta hiru urteko umeekin mugimenduzko jarreraren honi garrantzi gehiago eman behar zaio, izan ere, mugimendua da bere adierazpen bide bakarra hizkuntza oraindik askok ez dutelako garatuta eta beraz, mugimendu eta keinuen bidez komunikatzen dira.

Jolasa, mugimenduzko jardueraren eboluzioa eta sinbolismoa sustatzen ditu eta aldi berean, harreman duala eraikitzen du sinbolismoa eta testuinguru sozialaren artean. Esku hartze psikomotorrean, bat-batekotasunari tartea uzten dion ekintza markoa sortu behar dugu non bere fantasiak, desioak eta beharrak bizi ahal izango dituen epaitua izan gabe. Gainera, jolas sinbolikoak haurraren bizitza afektiboaren adierazpen sakonagoa suposatzen du.

Adierazpen hori ulertzeko hezitzaileak, haurrak egiten duen materialaren erabilpena behatu eta interpretatu behar du. Baita espazioen erabilpena ere, besteekin duen harremana eta baita besteekin garatzen den argumentua, horrela irakaslearen erantzuna haurraren beharrei egokituta egongo da. Haurrak izan ditzakeen beharren arabera, irakasleak gelan esku hartuko du, materialak, espazioa, hizkuntza eta gorputza erabiltzen, haurraren jolasa osatzeko edo eboluzionarazteko (J.Sanchez y M.Llorca, 2001).

Elkarrizketa tonikoan, helduaren inplikatzeko eta parte hartze aktiboak jokatzen du, haurraren jolasean bere funtzioa ez da izango soilik behatzaile edo gidariarena, pertsona bezala beste pertsonekin konprometituko da harremanak eraikitzen. Horregatik elkarrizketa tonikoan, alde batetik helduak bere jarrerak haurraren jarreretara moldatuko ditu eta bestetik, bere mugimenduzko jarduerari esanahia ematen dio, asimilazio eta akomodazio prozesuari zentzua emanez (Franc, 2004)




Diagrama 1: Franc, 2004: Esku hartze psikomotorra irudikatzen duen eskema.

1.2.1 Hezitzailearen jarreraren ezaugarriak

Psikomotrizitatean, hezitzailearen jarrerari buruz aritzen garenean, haurrarekin izateko eta egoteko moduz mintzo gara. Izan ere, askotan esan dugun bezala bere helburua haurraren nortasun eraketan laguntzea da eta horretarako haurra onartu behar dugu. (Camps, 2004).

Camps-ek irakasleak izan beharreko ondorengo ezaugarri hauek hartzen ditu aintzakotzat, jarrera egokia eta haurrentzako lagungarria izango dena bermatzeko:

- Behaketa eta entzumen gaitasuna

Aucouturier-en hitzetan entzumenak enpatia tonikoa suposatzen du eta aldi berean prozesu bat inplikatzeko du. Izan ere, entzumena egoteko behaketa ere egon behar da hezitzailearen partetik, horrek haurrak adierazten duenaren ulermena suposatzen baitu. Behaketa egon dadin, akzioan gelditu behar gara, hau da, saioan zehar gelditu eta haurrek egiten dutena behatu behar dugu. Edozein esku hartze egin aurretik behatu beharra dugu, haurraren garapen momentua antzemateko, eta gure interbentzioa bere beharretara egokitzeko (Aucouturier, 2012). Horretarako ezinbestekoa da begirada periferikoaz baliatzea, saioan gertatzen den guztia antzeman beharko du hezitzaileak gelako eremu guztiak behatu beharko ditu. Horretarako bizkar atzean ezin izango ditu umeak izan, gelaren periferian kokatu beharko da.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

Bestalde, entzumena egon behar du, hau da, hezitzailearen deszentrazio gaitasuna bestearen tokian jartzeko. Horrela errazagoa egingo zaigu, adierazpen psikomotorren zentzua, edukiak eta formak jaso eta onartzea, sentsibilitate handiagoz. Hezitzaileak sentikorra izan behar du haurren emozioekiko, baina inbaditua izan gabe eta distantzia bat mantenduz, sortzen den harreman afektiboan garatzen laguntzeko. Jarrera honek, haurra babestua, errespetatua eta ulertua sentitzea ahalbidetuko du. Horrek bere adierazpenean lagunduko du, konfiantzarekin sentituko delako.

Haurra bere adierazpen psikomotorretik abiatuta entzungo dugu, bere adierazpena aztertzeko parametro batzuk (materialarekin duen harremana, espazioarekin, denborarekin, beste umeekin eta helduarekin) aintzat hartuta. Azken batean, behaketatik abiatuta hezitzaileak bere proiektu pedagogikoa egin beharko du interbentzio egokia eskaintzeko. (Camps, 2004)

- Enpatia

Enpatia jarrera haurren irakurpen tonikoa egitea inplikatzeko du: bere postura, begirada, keinuak eta ahotsa, hain zuzen ere adierazpen psikomotorrean ematen direnak. Horrela haurren eskakizun kontziente eta inkontzientea aditu ahal izango dugu eta bere akzioari zentzua ematearekin batera, bere eskakizunaren erantzun tonikoa eman ahal izango diogu. Oso garrantzitsua izango da itxaroten jakitea, ez aurreratzea eta haurren akzioa ez moztea.

Entzumena, ulermena, errespetua eta babesa ematea izango dira, jarrera enpatikoaren gakoak, haurrarekiko sentimendu positiboa eraiki, baldintza material eta afektibo egokiak eskainiz. Doitze toniko eta posturalean lagunduz eta mugak argi markatuz.

- Prestutasuna

Prestutasunak haurren onarpena inplikatzeko du, bere istorioaren emaitza bezala ezagutzea eta bere ongizate desioaren eramaile bezala (Camps, 2004). Hezitzailearen prestutasun jarrera, maila intelektualean, afektiboan eta gorputzean azalera da. Hezitzailea haurren jardutera egokituko da gorputz eta hizkuntzaren bidez, haurren emoziora, beharrianetara eta desiora egokituz. Hezitzaileak ondorengo gorputz bitartekari hauek izango ditu: keinuak, mimika, ahotsa eta begirada. Tresna hauek

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

haurrarekin oinarrizko komunikazioa izatea erraztuko digute, keinuak eta mimika hizkuntzaz baliatu gabe komunikatzeko aukera ematen digute. Begiradak gorputzetik at dauden ezagutzeko erabiliko du umeak eta hezitzailea begiradaz baliatuko da saioan jarduteko. Baina beti, ahotsa gure oinarrizko komunikazio tresna bezala jokatuz.

Haurrek hezitzailearen prestutasuna sentitu ahal izango dute baldin eta haurraren aldaketa eta modulazio tonikoak adierazteko gai bada beti ere, enpatia tonikoa galdu gabe (Aucouturier, 2012). Azkenik, hezitzaileak lagun sinboliko bezala jardun behar du, hau da, hezitzailea jolasean sartuko da haurrak nahi dituen rol desberdinak sinbolizatuz, baina horietan giltzapetua izan gabe, helburu nagusia dinamikan laguntzea baita eta bere presentzia beharrezkoa ez denean irtetzen jakin behar du.

- Euskarria izan

Euskarri izatearen gaitasuna funtzio bikoitza dauka. Alde batetik, umea babestu eta segurtasuna ematea eta bestetik muga argiak jarri eta segurtasunez jardun, saioan lege irudi bezala jardun. Hezitzailearen jardura saioko lege irudi bezala, haurra fisikoki zein psikikoki babestuko duen legea izan beharko du, norbanako bakoitzaren askatasuna bermatuko duena elkarbizitzarako arau batzuk bermatzen dituelarik. Guzti hau hasierako erritualean azalduko zaie hurrei eta arauak oso xumeak dira: minik ez eman eta minik ez hartu; espazioa, materiala eta eraikuntzak errespetatu. Horregatik hezitzailearentzat ezinbestekoa izango da, haurren beharrak entzutea horrela jartzen dituen mugak haurren desioei lotuta daudela ziurtatuko du eta ez norberaren beldurrei lotuta.




Diagrama 2: Camps, 2004: Hezitzailearen jardunaren ezaugarriek eskema.

Aucouturierrek profesionalak heitzeko proposatzen duen metodologian, hiru atal nagusi daude: formakuntza teorikoa, formakuntza praktikoa eta formakuntza pertsonala. Haurrei lagundu ahal izateko eta garapen prozesu aberasgarria eskaintzeko ezinbestekoa izango da gure barrena ezagutzea. Gure gorputza eta gure burua ezagutzea, gure mugezk eta gure beldurrez kontziente izatea. Hau da, praktika psikomotorra martxan jartzeko, gaitasun profesionala lortzeko prestatu behar da. Prestakuntza horren gakoa, prestakuntza pertsonala da eta hezitzaileari, bere dinamika pertsonalean aurkikuntza berria bizitzeko aukera eskaintzen dio; espazioarekiko, materialekiko eta beste pertsonetikiko inplikazioaren bidez. Modu honetan aldaketa pertsonal bat bilakatuko da eta horri esker norberak bere burua hobeto ulertuko du eta baita besteena ere. Heldua haurtzaroan bizi izandako gorputz esperientziak berriro bizitzera eramatean datza, igaro diren egoerak berriro bizitzea, batzuetan mingarriak direnak eta orokorrean ahaztuta eta erreprimituak daudenak eta horrek hurrekiko empatia lortzeak bermatuko du (Camps, 2005). Ezin dizkiegu haurrei gure gabezi eta beldurrak proiektatu eta horretarako horiekin kontziente izan beharra dugu.

Dena den, eskola gehienetan ez dago psikomotrizistarik eta beraz, psikomotrizitate saioak ikasgelako tutoreak edota beste hezitzaile batek ematen ditu.

2. METODOLOGIA

Psikomotrizitate saioen analisia egiteko, Intxixu ikastolako saioak hartu ditut abiapuntutzat. Iazko ikasturtean, Practicum II bertan garatu ondoren, eta psikomotrizitate arloan zituzten gabeziak ohartu eta gero, aurten ere Practicum III ikastola berdinean burutzeko aukera izan nuenez, Gradu Amaierako Lana garatzeko testuinguru interesgarria izan zitekeela erabaki nuen.

Intxixu Ikastola, Bilboko San Inazio auzoan kokatuta dagoen eskola publikoa da. Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako mailak baino ez daude. Analisisien ardatza, bi urteko gelan dago kokatuta, gela honetan hemeretzi ikasle daude, zazpi neska eta hamabi mutil. Ikasle hauek astean birritan ordu beteko psikomotrizitate saioak dituzte, astearteetan eta ostegunetan. Astearteetako saioan, irakasle tutoreak saioen lehen hogeita hamar minutuak eman ondoren beste irakasle bat sartzen da gelako tutoreak libre duelako. Beraz, nire analisiak osteguneko ordubeteko saioetan oinarrituta daude, saio horiek hasieratik amaierara tutoreak ematen ditu eta goizeko hamar eta erdietan hasi eta hamaika eta erdietan bukatzen dira. Aipatu beharra dago tutorea ez dela psikomotrizista espezializatua, beraz, psikomotrizitatearen inguruan dituen ezagutzak ikasketak egin zitueneoak dira. Hala ere, duela urte batzuk Ikastolan Aucouturier metodologiaren inguruko formakuntza saioak izan zituzten eta berak horietan parte hartu zuen.

Intxixu ikastolako saioen analisia egiteko, bederatzi asteetan zehar saio horiek behatzearekin batera irakasle lanetan jardun dut. Ostegunero, saioa hasi bezain pronto behaketak egin izan ditut hasieratik eta amaierarte. Nire tresnarik baliotsuena saioan zehar behaketa periferikoa egitea izan da eta datu horien bilketa behaketa taula batean bildu ditut.

Saioen analisia egiteko Sanchez eta Llorcak proposatutako behaketa taula egokitu dut. Saioa behatzearekin batera, taulak betetzen joan naiz (*Ikusi 1. eranskina*). Bederatzi saioen behaketa egin dudan arren, sei tauletan baino ez naiz oinarritu, izan ere, lortutako emaitzak oso berdinak izan dira, beraz, esanguratsuenak islatzea erabaki dut. Nire analisia sei taula horietan oinarrituta baitago.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

Horretaz gain, taulari nire lanaren analisi sakona burutzeko interesgarriak izan zitezkeen gidalerroak gehitu dizkiot, izan ere, behaketan ikusitako datu guztiak biltzeko tresnarik erabilgarriena behaketa taula da. Taulatan, irakaslearen esku hartzea eta rola aztertzeko gida lerroak zehaztu ditut, jarrera behatzeko eta bere jarduna analizatzeko gida lerroak ere agertzen dira. Lerro batzuk kuantifikatu beharrekoak izan dira (bai/ez), eta beste batzuk ordea irekiak izan dira. Taulak betetzen joan naizen heinean analisia garatu dut, izan ere, taulak datu bilketa arina eta zehatza egiteko tresna bezala erabili ditut

3. IRAKASLE BATEN ESKU-HARTZEAREN ANALISIA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

3.1. Saioaren antolaketaren analisia

Analisi honetan, denborazko dispositiboa eta dispositibo espaziala betetzen diren ala ez ikertuko da.

Dispositibo espazialari dagokionean, psikomotrizitate gelara sartzean, ez dago mugimenduzko adierazpena eta adierazpen plastikoa eta grafikoa desberdintzen dituen espaziorik, beraz, argi dago ez diotela adierazpen plastiko, grafiko eta mintzairari tartea eskaintzen.

Denborazko dispositiboak ere ez dio zuzenean Aucouturierrek planteatzen duen dispositiboari erantzuten:

a) Hasierako errituala

Irakasleak egiten duen hasierako errituala nahiko egokia da Aucouturierrek planteatutako metodologiari jarraitzeko. Kontuan hartzen du, saioen hasieran ordena eta isiltasuna mantendu behar direla, ordena mantentzeak, besteari entzutea interesgarria dela erakusten du eta oso aberasgarria da haurarentzat. Guzti hori jolasa arautuko dituen arauak lantzen dituen bitartean.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

Orokorrean ez die haurren jolas desioei erreferentziarik egiten eta oso garrantzitsua izango da, irakasleak saioaren garapena azaltzea, horrela taldean desioak eta fantasiak sorraraziko ditu, horiek beranduago jolas planetan bilakatuko direlarik.

Gelara sartzean, hurrek zapatak eransten dituzten bitartean, irakasleak harresia eraikitzen du. Askoz ere gomendarriagoa litzateke, haurrak gelara sartu orduko horma eraikita egotea horrek haurren desioak pizten dituelako. Hasierako erritualari amaiera emateko korrotik altxatu eta irakasleak eraiki duen hormaren aurrean jartzen dira zutik, irakasleak hiru zenbatzean, denek egiten dute korrika horma botatzeko.

b) Jarduera Sentsorimotorra

Irakaslearen saioa batik bat jarduera sentsorimotorrean oinarritzen da, saioaren denbora gehiena fase honi eskaintzen dio eta bere esku hartzea bereziki, aipatu dudan bezala, salto egiteko txokoan dago. Hurrei babes eskaintzen die salto egiteko momentuan, izan ere, askotan liskarrak sortzen diren gunea da, ez diotelako bata besteari itxaroten eta

txanda pasa egiten dutelako. Salto egiterakoan laguntza eskaintzen du, eta salto egiteko proposamenak egiten dizkie hurrei.



Argazkia 4: Intxixu Ikastola, espazio sentsorimotorra

Nahiz eta fase hau aurrera ematen duen, noizbehinka dinamika desegokiak burutzen ditu. Mugimenduzko adierazpenaren espazioa erdibitu eta bola txikiekin jolasteko gunea eraikitzen du, baita boloekin jolasteko gunea ere. Horrelako proposamenak saioaren ordu erdi bat igaro denean egiten ditu, horrela haur guztien mugimenduzko fasea honetan murgiltzeko denbora izan dutela ziurtatzen du, eta zer egin ez dakitenei horrelako proposamenekin jolastera bultzatzen ditu. Beraz, boloen jolasa guztiz lehiakorra izateak, ez dator bat fase honek duen helburuekin. Dena den, behatu ditudan bederatzi saioetatik hiru saioetan baino ez du horrelako proposamena sortu, gehienetan, haurrak espazioa sentsorimotorrean gozaten ari zirelako.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

○ Jolas sinbolikoa

Behatutako saioetan, haurren jolas sinbolikoak psikomotrizitate saioan oso eskasak dira, izan ere, irakasleak ez du jolas sinbolikoa garatzeko material egokia eskaintzen; material hauek txikiak, bigunak eta gogorrak, moldagarriak dira: bolak, palanganak, pilotak, oihalak, zapiak, sokak, panpinak. Jolas sinbolikoa garatzeko espazioak eraikiz ere, haurrak jolas sinbolikoan murgilduko dira, hala nola, etxea eraikiz edota kobazulo iluna eginez. Haurrak izan ditzakeen beharren arabera, irakasleak gelan esku hartuko du, materialak, espazioa, hizkuntza eta gorputza erabiltzen, haurraren jolasa osatzeko edo eboluzionarazteko, eta batzuetan ere, errealitateari erreferentzia egiteko.



Argazkia 5: Etxearen babesak

Lagun sinboliko bezala jardungo du, zenbait rol antzetzuz, jolasak sorraraziz, eta haurra bere bizipenak sortzen eta adierazten lagunduko dioten egoerak sortuz (Sanchez, Llorca, 2001). Jarrera hau egoerak eskatzen duenean bakarrik izango du, ezin da errutina bihurtu, bestela haurren askatasuna eta sormena hautsiko litzateke.

c) Ipuinaren fasea

Fase hau irakaslearen psikomotrizitate saioan ez da ematen. Denbora aldetik, oso eskasa delako ipuin kontaketa tartea uzteko eta gelan errutinekin batera lantzen denez, fase hau kentzea izan da irakaslearen erabakia. Saioaren iraupena ordu betekoa dela kontuan izanda, eta eskolako baldintzak aintzat hartuta erabaki hau justifikatuta dago, izan ere, faserik garrantzitsuenak garatu nahi izanez gero, fase kentzea baino ezin da egin. Beraz, erabakirik zuzenena saioa luzatzea litzateke.

d) Adierazpen plastiko eta grafiko

Irakasleak ez du adierazpen plastiko eta grafikoaren fasea garatzen. Saioaren amaiera adierazpen jarduerari eskaini beharko zaio, non haurrak baliabide desberdinen bidez (marraskia, eraikuntza, modelatua) bere bizipenak nola barneratu dituen azaltzen digun, zelan sortu ahal



Argazkia 6: Norbere buruaren adierazpena

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

dituen bere pentsamenduan eta zelan adierazten dituen.

Hortaz, fase hau garatzea ezinbestekoa da aurreko fasean bizi izandako adierazteko. Horretarako saioa luzatzea derrigorrezkoa da, ordu bat ez delako nahikoa fase guzti hauek garatzeko.

❖ Amaierako errituala

Azkenik, irakasleak saioaren amaiera adierazten du, eta horretarako askotan gelako argiak amatatzen ditu. Materiala batzeko agindua helarazten du eta ondoren zapatak jantzi eta haurrak korroan jesartzen ditu. Korroan daudela, abesti bat abesten dute, eta bakoitzak txanda bat du abestian parte hartzeko. Modu horretan, haurren pultsazioak jaisten saiatzen da, talde autoerregulatzen eta gelara joateko prestatzen ditu. Irakasleak burutzen duen fase hau guztiz egokia da.

Analisiak aditzera eman dizkigun emaitzei dagokionez, saioaren egiturari antzeman daitezkeen lehen gabezia, bost faseetatik hori baino ez direla betetzen da eta bi faseen garapenaren beharra dagoela. Lanean aztertutako irakasleak, ez ditu ipuinaren fasea eta adierazpen plastiko eta grafikoaren faseak garatzen. Ordu beteko saio batean mugimenduzko adierazpenak hartzen du garrantzi gehiena eta ondorioa bi fase hauen desagertzea da. Hau ekiditzeko aukera bakarra saioa luzatzea litzateke, baina eskola gehienetan ez dago horretarako aukerarik, haur hezkuntzako gela guztiek erabili behar dutelako gela hau astean behin eta hortaz, ezin dira saioak luzatu. Aipatzekoa da ere materialaren desagokitasuna; materialaren aniztasun falta izugarria dago aztertutako saioetan eta ondorioz, jolas sinbolikoak duen agerpena oso eskasa da. Azken batean, haurrei eskaintzen diegun materialak asko baldintzatzen du haien jarduna eta kasu honetan jolas sinbolikoan du eragin handia.

Haurrak gelara sartzean, geroago botako duten harresia ez dute eginda ikusten, irakasleak haurrek zapatak eransten dituzten bitartean eraikitzen du. Hasierako erritualarekin hasi aurretik eta gelara sartu aurretik, harresia eraikita egon behar du haurren jolasteko desioa pizteko.

3.2. Hezitzailearen jarreraren analisia

Jakin badakigu, behaketa egitearen garrantzia ukaezina dela psikomotrizitate saioan zehar, hori baita esku hartzea haurren behar izanetara moldatzeko bide bakarra eta hezitzailearen tresnarik baliotsuena. Praktika psikomotorrak dituen ezaugarriengatik, egunero aldakorra da eta haurrak espazioan etengabe mugitzen ari dira. Guzti hau kontuan izanda, hezitzailearen jarreraren analisia egiteko alderdi negatiboak eta positiboak aurkeztuko dira.

Entzumen gaitasunari dagokionez, irakasleak itxaroten daki eta ez du inoiz haurren akzioa mozten eta oso gutxitan esku-hartzen du, bere laguntza guztiz beharrezkoa denean. Esku hartzen duenean, baten batek gelako araua hautsi duelako da, lagunari min eman diolako gehienetan. Momentu horietan, umea geldiarazi eta araua gogorarazten dio. Hala ere, haur berdinak behin baino gehiagotan arau hori hausten badu, bankuan jesarri egiten du, pentsarazteko. Haurrarekin hitz egiteko tartea bilatzen du, egin duenaren inguruan biek hausnartu dezaten. Bestalde, gelako ume txikiengana askoz ere gehiago hurbiltzen da, beharbada autonomia gutxien dutenak direlako eta horrek egoera askotan ahul bihurtu ditzakeelako. Haur urduri, mugitu eta indartsuengana ez da hainbeste hurbiltzen. Haurrek zenbat eta autonomia gehiago izan irakasleak orduan eta laguntza gutxiago eskaintzen die, haiek ere laguntza gutxiago behar dutelako.

Entzumen gaitasunari dagokionean, ez ditu jolas proposamenak egiten eta are gutxiago, jolasetan parte hartu. Zentzu horretan irakaslearen jarrera egokia da, haurrek jolasteko askatasun osoa dutelako, taldearen jolas inizatiba itxaroten duen heinean.

Lan honetan analizatutako irakasleak ez du behaketa periferikoa egiten, hau da, ez da gelaren alde batean kokatzen (hormaren parean adibidez) saioan gertatzen den guztia ikusi ahal izateko. Askotan bere bizkarraren atzean ere umeak daude eta haur horiek egiten ari direna behatzen duen bitartean gelako gertaera asko galtzen ditu. Gehienetan salto egiteko txokoan egoten da umeei salto egiten laguntzeko, eta leku horretatik bere atzealdean koltxoneta handi bat dago eta bertan gertatzen dena beha ezina bihurtzen da berarentzat.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

Egiten dituen behaketa guztiak antzeko esku hartzeak egiteko oinarria dira. Psikomotrizitatea eraginkorra izatea zaila izango da behaketa periferikoa egiten ez duen hezitzaile batekin, gure esku hartzeak haurren beharrei erantzuteko behaketa egitea ezinbestekoa baita.

Proposatzen dudan behaketak, haurren ezagutza progresiboa, motela eta zentzuduna bereganatzea du helburu. Koherentek izateko ez gara bakarrik



Argazkia 7: Intxixu Ikastolako psikomotrizitate gela

